

**BIZKAITARRAI-
BIZKAIERAZ***

www.euskerazaleak.biz

328n. zenbakia

2007 maiatza-bagilla



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

EDESTIA

Aspaldi gabe ikusi nuan euskal irratiskiñean Xibero'ri buruzko berri-txosten bat, ta an ageri zan Xibero'tar gazte bat illeta jotzen, berek an etxerik ezin erosi edo alogeratu ta irurogei bat englandar sendi Xibero'ratu zirala-ta, England'en an etxea erostea boladan jarri baitzan.

Edestia egokiro aztertzen baldin ba'degu ordea, askotan englandarrek eta euskaldun-euzkotarrok artu-eman onak izan ditugula jaulki dezakegu.

Galíndez'tar Jesús lege-iztilari negartuaren iritiz, ezin esan diteke saksoi lege-iztiak euzko zuzenbidean eragiña izan zunik. Bere ustez, bi Erriek lenen artu-emanak izan zituztenean, euzko erakundeak elduak zeuden, ta bearbada euzko erri-aginte erakundeek Goi Erdi Aroko England'en eragiña izan zezateken, England errege-nagusikeri larregi edo absolutismuaren aurka borroka egiten asi zan-eta.

Egille beraren itzetan, gaurko egunean saksoitar aberrietan ondu egin diran erakundeak euzko lagiztiari obeto egokitu lezaizkioke latindar erakundeak baño, euzko erakundeak saksoi erakundeek izan zuten antzeko araubidean tajutu ta loratu ziralakoa. Berak dionez, *Oraingo, gogora ekarri ditzagun Ingelanda'ren eta bere Aginterriaren (kaisalderri edo inperioaren) dezentzalizazioa, ta Laterri Alkartuen batza-jaurpide edo sistema federala, gure organik gerengaintasunaren antzekoa; gutxinaka-gutxinaka England'en garatutako erri-aginte edo demokrazia, Gutun Aundia bezelako asi-masiko agiriak zituana, 1342'gn. urteko Bizkai'ko Ingurraztiaren antzekoak ziranak, ta Ipar Ameriketako leendakaritza-jaurpidea, euzko erri-agintearen erakundetzearen oso antzekoa; saksoitar Common Law dalakoaren oituzko ta askitzeko edo tradizio-oñarria, gure zuzenbide-iturrien malla bera duana; lur-sallen jatorribereketasun edo tronkaleketasuna, ondasunen sendi-sen sakona, ilburukoa edo azken-naia egiteko askatasuna, bi lege-izti araubideetan batera dutena; azkenik, egitan, euzko norbanako askatasunak askoz ere urrutiago dirala latindar gogotik saksoitar egikeratik baño.*

Lapurdi ta Xiberoa englandarren mende ibilli ziran, gizarte ta ekonomi erakunde batzuen barrenean, artu-emanen askotariko arlo bat zutela, ta jauntxokeria berealdiko garrantzia artuz dijoa, etengabeko endekatze bidean baldin ba'da ere.

1152'gn. Urtean, Plantagenet'tar Endika II'gn.a Akitani'ko Leonor'ekin ezkondu zan; beraz, Akitani'ko Dukaterria ta onekin batera, Ipar Euskalerria, England'eko burestun edo koroira igaro ziran, Endika 1154'an bakal-alki edo tronura igo zanean.

Ainbat matxiñadak Ricardo Legoi-Biotza'k (Endika II'gn.aren semeak) esku sartzea eragin zuten, aitzak Akitani'ren jaunkintza edo gobernua eman ziola-ta. 1174'an, Rikardo'k Baiona uria gañantzeko Lapurdi'tik bereizi zuan eta uri ori zuzenean Bakaldun edo Erregeren agintepean gelditu zan. Ustaritz gelditu zan Lapurdi'ko uriburu.

Banantze orren ondorioz, Baiona garrantzizko salerosketagune biurtu zan. Ortxe sortu ziran aberatsartekoen edo burgesen eta salerosleen giza malla ekintzalleak, ta aurki piztu zan gañantzeko Lapurdi'rekiko leia, Lapurdi oraindik basarri-ta jauntxokeri-giroan zan-eta.

Saul'tar Gillen'ek, Lapurdi'ko bizkunteak, bere bizkunterri-eskubideak Ingelanda'ko Bakaldunari saldu zizkion 1193'gn. Urtean. Aitoren sengiai (noblezari) aurre egin zezaieten, englandarrek Erriarengan artu zuten oñarri, beronen eskubide, oitura ta askatasunak onartuaz, ta jauntxoen jaurbide edo errejimena ia-ia ezkutatu egin zan.

Zubero'k ere, englandarren mende zegoala, oparotasun garaia izan zuan, auek Xibero'ren oitura, oituzko itun eta askatasunak onartzen zituztela. Xibero'ko armari ta ikurretan, legoia ageri da, englandarrenetan bezelatsu... legoia orru. 1307'gn. urtean, Auger bizkunteak Xibero'ren gañeko eskubideak England'eko Bakaldunari utzi zizkion.

Xibero, 1449'an Foix'ko ta Bearne'ko bizkuntea zan Gaston XI'gn.aren agintepean gelditu zan, Pantze'ko XI'gn. Luis'engana igaro zan arte, onek Zubero'ko lege'zaar edo foruak ziñ egin zitula.

Lapurdi 1450'gn. urtera arte geratu zan England'ekin alkartuta; urte artan Prantze'rekin alkatu zan eta bertako Bakaldunak oiturak ta oituzko itunak aitortu zizkion. Urte artantxe ere izenpetu zuten prantzetarren eta englandarren arteko pake-ituna, Aiherre'ko Belzuntze gazteluan.

Be-Naparro'ri dagokionez, esan bearra dago 1191'gn. Urtean Ricardo Legoi-Biotza'k Naparro'ko Bakaldunari itzuli ziola.

Bestalde, aldatu ditzadan onera Agirre ta Lekube'tar Yoseba Andoni Lendakari zanak idatzitako *De Guernica a Nueva York pasando por Berlín* idaztian aurkitutako lerro auek, Gerenabarrena'tar Andoni'k *Azkatasunaren Yarra* izen-burua jarrita euzkeraldu zuna. Bizkaieraz dagola-ta, gipuzkeraz moldatu det bere begiz ikusiko atzerritar batek edestu bezaizu, ene irakurle. Euzkadi'ko gudategian Londres'ko *The Times*'entzako izpar edo berri biltzen zebillen G.L. Steer'ek oraingoxe itzok idatzi sitúan bere *The Tree of Gernika* deritzan idaztian:

Euzkotarrak urtebetean izan duten beren Jaurlaitzaz arro daude, eta zergaitik egon ere ba-dute. Legeari ta uzkuertza edo relejioari itzala (begirunea) izan zieten, eta gentzatu edo paketsu bizi izan ziran; guztietariko gogape edo kontzientziek izan zuten askatasuna. Beartsuak janaritu, zaurituak sendatu, ta Jaurlaritzalana eztabaida bakartxo bat gabe, beste iñun ez oi danez, erabili zituzten. Berak izan ezik, España osoan jaurritzeko edo gobernatzeko gai zanik etzan agertu. Gañantzekoak, edo iñor erailtzen, edo langilleak latz-ikaritzen, edo aberria atzerritarrai saltzen ziardutenean, auek beren Abenderri edo nazio txikia gizarte-alkartasunaren lokarri sendoenekin alkatu zuten... Urrengoan, neronek zintzoro opa diedanez, beren lanak zori ohea izango dula uste izan lezateke; baño beren gizabide, zindotasun eta omenari oraingoa eragin dieten baño gorago eragiterik, nekez iritxiko dute.

Steer'ek idatzi zuan azkenengo onek euzko gizarteak ondoren izandako gizatasun-aultzearen zerikusia badula esan diteke. Gaurko egunean, orren egokiro jardungo litzaken jaurlaritzarik antolatzeak lan aundiak emango lizkigukela egingo nuke, euzkotarra euzkotarrari otso ageri bai-zaio, ta nekez iritsi aalko litzake orrelako alkartasunik.

Agirre Lendakariak irratizkiñez berri eman zuanean, doixtar egazkiñez lerkaz josi zutela Gernika erri apal, lasai ta paketsua iru ordu t'erditan, Franco'k erantzun omen zion: *Gezurra dio Agirre'k. Gernika'ri guk itzal ona izan diogu, España'rena dan edozeri diogun era berean.*

Areistian aitatu dedan Steer ingelandarrak ara nun erantzun:

Gernika'ko uriaren erraustea etzan bakarrik ikaragarritzko ikuskaia izan. Iñoiz kristauek entzun dituzten gezurrik zitelen eta biurrikeri gaiztoenen bide ere izan zan.

Urrengo batean ere jardun niteke Euzkadi'k Ingelanda'rekin izan dituan eta dituan artu-emanetaz, JL.

ASPALDIKO DEMOKRAZIA

Agintari gogorrek euren menpe gogorrean euki ginduezan ia 40 urtean (1936-1974), baiña danari jatorko azkena mundu onetan eta denporaldi ori be amaitu zan.

Izan ziran estualdiak, erregea bere jesarlekuan sendo ezarri arte, baiña azkenean orra be eldu giñan.

Zelan jokatu ete eban erregeak? Guk ba-genkian erregeak, bere erreñuak sendo eta osorik jarraitu egian alegiña egingo ebal, erregeagaz be Euskalerraren askatasun osoa eziña izango zala, baiña len baiño obeto beintzat, bai euskerearentzat eta bai Euskalerrarentzat.

Sortu ziran errigintzarako alderdiak, sortu zan Madrid'eko lege-batzarra... eta Euskalerrria'n zer?

Emen be gure lege-batzarra edo parlamentua sortu gendun auteskundea egin-ondoren, alderdien ordezkariak or geunkazela.

So egin dagiogun apur bat astitsuago gure Lege-Batzarrari, parlamentuari.

Argi agertzen jaku, or bitariko alderdiak daukaguzala. Batzuk abertzaleak (EAJ, EA ta BATASUNA) eta aberertzaleak ez diranaz beste batzuk (PSOE, PP eta EB). Olako Lege-Batzar batetik atera lei aurrera gure Euskalerrria?

Ez da gauza erreza, lenengo iru eskualde baiño sartzen ez diralako eta bigarren abertzaleak ez diranen indarra aundia dalako.

Dana dala, ba-goaz aurrera eta Lendakari abertzalea izan dogu beti orain arte.

Zer pentsau España'tarrak diran alderdi orrei buruz?

Ona emen lenengo egin bear dautsegun itauna: Zuek onartzen dozue bere zazpi lurraldeetan bizi dan Euskalerrria? Uste dot ezetza izango dala erantzuna.

Eta bigarrena: Euskalerrri orrek askatasun osoa eskatzeko eskubidea daukola onartzen dozue? Emen ezetza gogorragoa izango da. Orreik nai leukeena Euskalerririk ez izatea eta gu españatarrak izatea da.

Orduan eziña da olako alderdiakaz Euskalerrria aurrera ateratea, orrein pentsabidean demokraziaren oiñarria peitzen dalako.

Eta alderdi abertzaleen artean beste arazo bat dator: Erriaren askatasun osoa lortzeko, alkar-izketearen bidea ala gogorkeriaren eta izkillu-bidearen alde agertuko dira eta orreikaz be ezin dogu gure erria aurrera atera. Dana dala, arazo au konpondu leikela dirudi eta laster bideratuko dala esan lei. Urrats on bat litzake ori abertzeleak alkartzeko eta geiengo ziurra euki dagien.

Orrelan gauza asko lortu geinkez. Ba-dago itxaropena.

Etorkizunari begira:

- Zazpiak bat eginda, askatasun osoa urrin ikusten da.
- Orain-arte lez "anfiktionia"-egoereak jarraituko dau.
- Ipar-ego euskal lurraldeak alkarrari laguntzea be lortu leike: Lantegiak, langilleak, bideak, trenak, txangolariak... alkarren laguntza biurtuta.

Eta orrelan Euskalerrriak jarraituko dau. Geroak esango dau geiago lortzeko gai garan ala ez.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

OARRA

Zenbaki au maiatzari eta bagillari dagokiena da.

Bagilleko ZER aldizkaria ez da argitaratuko.

Ordez EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren 40n. urtea gogoratzen eta ospatzen dauan agiria bialduko dogu.

Urrengo ZER uztail eta agustukoa izango da.

EUSKERAZALEAK

ALARGUN BATEREN SENARRA ZANARI IDAZKIA

Ez dakit zuretzako neure leenengo idazkiaz jakingo dozunik. Nik asmo orregaz idazten deusut baina ainbat urte igaro eta gero... ez dakit barruan daukadana esateko gauza izango nazan.

Joan zintzatanean ilundu ez ezik asarretu ere egin nintzan. Ezer ulertu barik, onartu barik eta bizi-gura bagerik bizi izan naz luzaro. Alkarrekin bizi ginan urteak urriegiak izan ziran eta zu-gabeko urteak oster, oso luzeak.

Ondo dakit nik zure gogoaren kontra joan zinala eta ez ninduzula bakardadean itzi gura baina zu barik alaxe bizi nintzan, bakardade osoan.

Non egozan gure maitasunezko ordu bereziak? Non gure alkar-biziaren gozotasuna? Non ere, gure alkar-jazariak? Oneek ez ziran ugari baina alkarreganatzeak... Areek bai maitekorrak!

Gure bi alabatxoaz ere gitxiegia gozatu zinan. Nagusienak, nekez gogoratzen zaitu eta txikienak, daukaguzan argazki eta esanaren bidez zure irudia buruan sartzea lortu dogu eta ez irudia bakarrik maitea, zure umore ona eta izaera maitagarria ere adierazi deusoguz.

Gure alkarbizitzaren denboraz, eskasa izan arren gertaldi kontagarriak gorde ditut nire barruan. Ondo gogoratzen dot nire leenengo erditzearen eguna, minak, gero eta sarriagoak ziran, egunsentia zan eta zu lo-zorroan lasailasai, nik urduri, astindu zindudazan jaiotzaren ordua etorten egoala esateko, eta zuk, laztana, zure betiko

patxadaz, eskua sabelean jartzen: “Lasaitu zaitetz maite-txo, ondino ordu pare bat daukazu lo-egiteko”. Nik ezin neban sinistu baina “mutil onek daukan koskorra!” esanez, baretu nintzan. Geroago eta bizkorrago zengozanean azaldu zeustan: “Sarritan lagundu ditut beiak eta ondo igartzen dot erditze-ordua”. Ago zabalik geratu nintzan baina olakoa zinan zu.

Beste batean, ez dakit gogoratuko dozun, -niretzat oso gertaera unkigarria izan zan- alkar-aserretu ginan eta ni negarrez ogeratu nintzan. Urrengo egunean, zu lan-egite-ra joan ondoren gosaltzeko altxatu nintzanean, sukaldeko maai-gainean magneto-xinta bat ikusi neban. Entzutean biotz-ikaratu nintzan, zure mintzaera berezi eta maitagarriaz, barkamena eskatuz abesti bat konposatu zeustan.

Lanetik etortzean itzelezko afari bategaz opari ostein aaztu-ezineko gauaz gozatu ginan. (Guzti ori ain txarto abestu arren laztana).

Ene maitea! Inoiz ez dot alakorik aaztuko! Neurrigabeko baliokoa izan da niretzat zinta a baina entzutearen-entzuteaz desegindu jatan.

Ala ere ez da bearrezkoa zutaz oroitzeko, zutaz mintzatzeko eta zeuk zinoanez, gure maitasuna “maitasun josia dala” esateko. Eriotzak nire ondotik aldendu arte ezti gogozko ilargian bizi ginan.

Agur ene maitea, betiko bat-egin arte.

PALMI MERINO

KITARA

Ames egin dot ames
Manutxo, non, ete dan
nire aiskidea,
mutiltxo argitsua
erririk erri dabil
erri maitalea.

Mutiltxo argitsua
kitara jotzen dabil
erri maitaletan,
jendea, pozez, doa
artistei entzuten
goiz eta arratsetan.

Egunak egunari
kantu onak dakartsoz
kitara soiñuan,
ta jendea pozezka
dantza gozotan dabil
soiñu inguruan.

ABESTIA

Erri kantaria da
belarri onenagaz
euskaldun jendia,
abestia ta poza
biotzean daukazan
artista erria.

Abestia goizean
eguzkiaz batera
poza da mendian,
erleak ezti billa
zugatzik zugatz dabiltz
egazka aidian.

Karmeltxo mutiltxo
usain gozoak artzen
zugatz lorapean,
ta beiak, gogoz, jaten
bedar orlei gozoa
mendi magalean.

PAULIN

GAURKO FILOSOFIA: BESTE MUNDURA BEGIRA DAGOZANAK

Gau egun, mundua eta gizabidea zabalik ikusten dabenezak gogoratuko doguz orain eta iru jokabide agiri dira: Frantze'ko gogozaleak, Akino'ko Tomas'en jarraitzaile barriak eta notin-zaleak.

☆☆☆

FRANTZE'KO GOGOZALEAK

Oneik ideizaleen eta positibisten aurka dagoz eta notia jaungoikoagana eta inguruko mundura zabalik dagoala diñoe.

BERGSON (1859-1942)

Paris'en jaio zan, Juda'tarren sendian, baiña bere pensabideak katoliku izatera bultzatzen eban. Ez zan kristiñau egin judatarrek aurrean erabiliak zirako. Nobel saria literatura saillean lortu eban.

Onen filosofian denporeak dauka garrantzi aundia: "Lenaren erpina geroa zulatzen" baiño besterik ez dala diño. Eta denporearen barruan bakoitxak daukan indarrari (elan vital) emoten dautson garrantzia.

Eragin aundia euki eban Maritain eta Gilson'engan, baiña oneik Akinotarraren bideari jarraitu eutsen.

☆☆☆

AKINO'TAR TOMAS'EN JARRAITZAILLE BARRIAK (Neotomistak)

XIII Leon Aitasantuak indarra emon eutson Tomas deunaren bideari, filosofia egoan illun-une aretan argia zabalatzeko, eta laster agertu ziran filosofoak.

MARITAIN (1882-1973)

Sendi protestantean jaio zan baiña gero katoliku egin eta ospe aundia lortu eban katolikuen artean, Batikano'ko II Batzar Nagusira deitua izan arte. Bergson'en bultzadeak asko lagundu eutson.

Maritain beti agertu da, unerik txarretan be bai, euskaldunen alde.

GILSON (1884-1978)

Erdiaroko filosofia aztertu eban eta orrek bere ikuspegi asko zabaldu eban Akino'ko Tomas ondo ulertzeko.

☆☆☆

NOTIN-ZALEAK

XX gizaldian, 30n. urte-inguruan, guda bien bitartean sortu zan filosofi-bide au: 1948n. urtean agertu ziran giza-eskubideak eta Batikano'ko II Batzar Nagusiak eragin aundia dauke euren eta eurak be lan aundia egin eben orretara giroa aldatzen.

MOUNIER (1905-1950)

Katoliku baserriarren artean jaioa dogu eta gatx egin jakon uriko girora sartzea

MARCEL (1889-1947)

Ez da erreza filosofo ospetsu au ekintza batera sartzea, batzuk izate-zalea edo eksistentzialista dala diñoe, baiña guk norti-zaleen arlo onetara sartzen dogu.

KAROL WOITILA, gaurko Aita Santua.

Onek be eragin asko izan dauz beronen bizitzan bai neotomisten aldetik, bai Husserl'en jarraitzaileen aldetik eta bai agiriko gauzen edo fenomenoloji-zaleen aldetik eta norki-zale edo personalisten aldetik, batez Max Scheller'en bidea jakon atsegin, baiña beste zeregin batzuk filosofia iztera eta egiteara bihurtzera beartu dabe.

MARTIN BUBER (1878-1965)

Judatarra ta Bienen jaioa da. Norkia gizartean agertzen dau onen filosofoak.

LEVINAS (1906-1995)

Norki-zaleen edo personalisten filosofi-barruan ona da.

OLAZAR'TAR MARTIN' EK

TESTIGANTZAK

JOAKIN GARLARTZA (1937-URTERRILA). IRUN

- Iraillaren 4'an urreratu ziran matxinzaleak Irun'era.
- Uria sutan egoan eta ez urreratzeko agindu eutsen.
- Urrengo egunean sartu ziran arro ta abeslari.
- Errebako etxeetan lapurretan egin eben eta armarik aurkitu ezker, etxeko jauna eralten eben.
- Diukuran kontzul-ordearen etxea inguratu eben erreketek eta falanjekoak, izkilluak eskuetan ebezala eta leioak irekin ebezana.
- Non dago abade sozialistea, oi u egin eben.
- Salbea abestu eben aundikiro.
- Erreketeak, guztiak batera domeketan 9' retako mezara joaten ziran: 1º erreketek, tanborra jotzen, gero plaioak, eta gero margaritak. Bost sartzen dira izkilluakaz eta

meza-erdian "marcha Real" jo bear izaten zan.

- Eleiz-bidea egin eben eskolan kurutzeta ipinteko eta gero atzera eleizara, "Te Deum" abestuteko. Beraldian abade batek, Francisco Aguirre'k, pulpitan auxe esan eban: "España'tar ona ez dana, ez dala kristiñau ona".

JOSE LUIS ARRIZABALAGA (Arrasate'n, 1937-01-15)

- Matxin-zaleak Arrasate'ra sartu ziranean, Urraka Pastor andereiñoa asi zan kalerik kale ibiltzen eta parrokoa aurkitu eban eta esan eutson: "Egin deadar "Viva España"... ozenago... ozenago... eta gero "Nire esku ba'lego ementxe ilgo neuke!"
- Abadea eleizan erderaz berba egitera beartu eben.
- Iru egun barru iru abadeak baitu eta Donosti'ra eroan ebezana eta irurak erail, Te Deum abesten ebela.

*EZAN ADITZ HIPOTETIKOAREN NONDIK NORAKOAK (I)

Aditz hipotetiko onen izena be Van Eys-ek ipiñi eutsan **edin* hipotetikoari lez. Aditz transitiboan laguntzaillea da subjuntiborako, **edun* hipotetikoa indikatiboko transitiboan laguntzaillea dan legez. Euskeraren enbor zarretik datorrela dirudi euskalki guztietan erabilikia dalako, baita bizkaieran be antxiñako denporetan, naiz eta gaur egun *egin* laguntzaillea darabilgun orretarako.

Forma onen antzekoak dira geien erabiliak: *nazan* ‘él me haya’, *nazazun* ‘tú me hayas’, *nazaten* ‘ellos me hayan’, *dezadan* ‘yo lo haya’, *dezan* ‘él lo haya’, *dezagun* ‘nosotros lo hayamos’, *dezazun* ‘tú lo hayas’, *dezaten* ‘ellos lo hayan’, *ga-it-zan* ‘él nos haya’, *ga-it-zazun* ‘tú nos hayas’, *za-it-zan* ‘él te haya’, *za-it-zagun* ‘nosotros te hayamos’, *za-it-zaten* ‘ellos te hayan’, *d-it-zadan* ‘yo los haya’, *d-it-zan* ‘él los haya’, *d-it-zagun* ‘nosotros los hayamos’, *d-it-zazun* ‘tú los hayas’, *d-it-zaten* ‘ellos los hayan’, etab.

Begi bistan dago, *ikusi*, *maitatu*, *ekarri* edo *eroateko* diran pertsonak edo gauzak bat baiño geiago diranean, euren adizkiak *-itza- izan*-en erro pluralatik datorren *-it-* marka erakusten dabe argi ta garbi, “sujeto pacientea” edo “absolutoa” pluralizatuz, adibidez, *ga-it-za-te-n*, eta *d-it-za-n*, *d-it-za-te-n*, etab.

Nai genduke aditz onek **edun*-egaz alderatu. Subjuntiboko *d-it-za-n*, *ga-it-za-n*-ek, etab. argi-argi erakusten dabe *-it-za-* erro plurala, baiña au *izan*-ena da. **Ezan*-ek erro plurala bardiña badauka, aditz biok berbera dira. Orregatik esaten genduen **edun*-en *ga-it-u* < *ga-it-za-u*, *d-it-u* < *d-it-za-u*, *za-it-u* < *za-it-za-u*.

Kontuan arturik **ezan*-en esangura ez dogula iñoiz be ezagutu ta aditz au hipotetikoa izanik, usten dogu *izan*-en aldaketa dala ta orregaitik ez dauka esangura argirik. **Edin* aditz hipotetikoari gertatzen jakon gauza berbera, beronen esangura be ez dakigulako. Naikoa da susmatzeko **edin* laguntzaille intransitiboa ta **ezan* laguntzaille transitiboa, subjuntiborako biak, *izan* berbera dirala aldaketa txiki batzuekatz.

Gure aurretik izan dira beste batzuk **ezan izan* bera dala esan dabenak, adibidez : Bonaparte, Campion, Lardizabal, Eleizalde, I.M. Etxaide, Umandi, etab. Schuchardt jaunak idatzi eban ez zineztekoa dala *izan* eta **ezan* alkarren ondoan bizitzea uztartu barik ainbeste urtetan, asierako *-i-* ta *-e-* alkarren artean trukutzen diralako.

Beti saiatu gara probatzen *-it-*, edozein pluragille soilizat artu dana, berez, *izan*-en *-it-za-* pluraleko erro

zati bat dala ta ori obeto ikusi dagigun, or daukaguz : *d-ir-a*, *d-it-u*, *d-it-e(ze)n*, *b-it-e(z)*, *d-it-za-te-n*, *b-it-za-te* adizkiak. Amen, lau aditz ikusten dira : *izan*, **edun*, **edin* eta **ezan*, azken irurak hipotetikoak. Laurok dauke *-it-* plural ori ta laurok bakarrik. Ez dago beste aditzik, guk dakigunik, pluragille ori daroanik. Gaiñera esan dagikegu **ezan* hipotetiko au beste edozein aditzaren kidea balitz, oneen antzeko adizkiak egingo leukezala, batez be pluralean : *gazazan* eta ez *ga-it-zan*, *zazazan* eta ez *za-it-zan*, *dezazan* eta ez *d-it-zan*, baita *dezazadan* eta ez *d-it-zadan*, *dezazagun* eta ez *d-it-zagun*, etab. Lau aditz laguntzaille, iru hipotetikoak, euren artean darabilen pluraleko marka *-it-* ori, zinezgaitza da, lauretan, aditz desbardiñak izanda, emaitza berbera atarzteza pluralerako ta beste “milla” aditz trinkoek beste era batera, *-z-* pluragilleagaz geienak, eta baita be *-tza-*gaz. Garrantzitsuena *izan* da beste aditz guztiak konjugatzen parte artzen dabena ta aditz onetan sortu zan *-it-* ori bere erroa luzatuz edo indartuz plurala adierazteko. Marka plural au daroan edozein aditz *izan* berbera da aldaketa txiki batzuk egiñaz.

Beste alde batetik begiraturik, esana daukagu indikatiboko **edun*-en *da-u-Ø* adizkia, *da-iza-u-Ø* -tik datorrela, literalki, ‘él es habido (por él)’ naiz eta gero *izan*-en *-iza-* erroa galdu. Subjuntiboa indikatiboa gei amaierako *-n* bada, atarako litzake *da-iza-u-Ø-n*. Fonetikako lege bateri esker, *a-i* > *e* biurtzen da ta orduan *d-e-za-u-Ø-n* gelditzen da. Era bardiñean, esan dogu *d-it-u-Ø* adizkia *d-it-za-u-Ø*-tik atara zala. Orduan, adizki oneri amaierako *-n* geituz subjuntiborako *d-it-za-u-Ø-n* daukagu. Indikatibo eta subjuntiboko formak zeozelan bereiztu bear eta subjuntiboan **edun*-en *-u-* erroa jan da, *d-it-za-n* egiñez, baiña indikatiborako *-u-* bizirik utziaz. Alderantziz, indikatiboan *-itza-u-* *-it-u-* billakatu da *d-it-u* egiñez eta, ara or, biok ederto bereizturik.

Es da arritzekoa *-u-* erroa galtzea, indikatiboan be adizki askorek ori erakusten deuskuelako, adibidez , Gip. *nazu*, *det*, *dezu*. Zaraitzuko euskalkian, indikatiboko orainaldian *gitzu* ‘tú nos’, *ztugu* ‘nosotros te’ antzeko formak daukaz baiña iraganaldian, *gintzazun* ‘tú nos’, *zintzazun* ‘nosotros te’, etab. **edun*-en erroa barik baiña *izan*-en *-tza-* ondotoxo jasorik.

Jarraituko dau...

EGUZKIAREN ZALDIAK ETA PAETON (ERROMA'KOA)

Apolo zan eguzkiaren jainkoa eta zeruaren azken-mugan egoan bere jauregi ikusgarria. Antxe bizi zan Ordua, Eguna, Illea eta Urtea bere mirabe zituala. Antxe gordeten eban bazter baten eguzkiaren sugurdia eta gurdi au egunero zeruaren alde batetik bestera eroaten eben zaldi bizkor eta indartsuak.

Eguzkiak goizero jazten eban soiñeko beillegia, buruan urrezko koroia, goizero lotzen eutsozan zaldiak gurdinari eta egunero egiten eban bere ibillaldia.

Mendi-muiño baten egunero egiten eutson bere agurra mutiko batek, baiña oso urrin egoan Apolo'k ikusi al izateko. Gaiñera zeregin aundia zan Apolo'rentzat eguzki-zaldi bizkor areik bear eben bidetik eroatea, lurreko mutil kozkor bateri begira egoteko.

Paeton zan ume ori eta besoetan jazoten eban Klime-ne bere amak. Eskolako lagunai arro esaten eutsen berak, Apolo eguzki jainkoaren semea zala. Eta guztiai emoten eutsezan aitaren barriak. Lagunak irri eta barre egiten eutsoen Paeton'eri eta zoratuta egoala esaten eutsoen.

Mutil sendo biurtu zanean, Paeton'ek amari esan eutson lagunak barre egiten eutsoela eta zer egin leikean lagunen agoa itxiteko.

– Ene seme- esan eutson amak adorea emoteko- aitagana joateko bide luzea daukazu, asko poztuko da zu ikusteagaz, semetzat artuko zaitu eta gero iñork ez dau-tsu irri-barrerik egingo.

Joan zan mutilla aitaren jauregi ederrerantz eta egu-nak eta egunak igaro-ondoren eldu be egin zan .Esan eutson ate-zaiñari nor zan eta onek jauregi-barrura sar-tzen itzi eutson.

Eldu zan eguzkiaren aurrera eta onen argi biziak ia itsutu egin eban eta onen beroak ia kizkaldu. Aurrean eukan Apolo urrez jantzita eta auzpez gurtu eban eta uste osoz esan eutson:

– Ene jainko aundi, Apolo! Paeton nozu ni eta Klime-ne neure amak bialdu nau zugana zuk semetzat artu nagi-zun. Zeuk esanda jakin nai dot egia dala amak diñoana eta orrelan amaituko dira nire zalantzak eta aurpegia emongo dautset nire lagun irrilariak.

Apolo'k maitekiro besarkatu eba Paeton eta esan eutson:

- Kendu biotzetik, seme, kezka orreik, seme zaitut, bai; naiko dot zure arpegia eta zure kemena ikustea. Apolo'ren semea izan ez ba'ziña ez zendun ibillaldi luze au egiteko adorerik izango eta nigandik doatzun

beroa jazateko almenik be ez. Neke aundiak artu dozuz nigana etorteko eta ondo sarituko zaitut. Eskatu, seme, nai dozuna eta emongo dautzut.

- Egunero ikusten zaitut zeruan su-gurdia eroaten. Itzi egidazu neuri be gurdi ori eroaten.

- Ez, seme, gaztetxua zara orretarako. Zaldi oneik barriz, indartsuak eta biurriak.. Ez daukazu zaldiak eroateko bear dan beste indar.

- Eskatuten dodana emongo daustazula esan dozu. Bai nik zuzenduko dodaz eguzki-zaldi orreik, ez nau ezerk ikaritzen

Arpegi goibelagaz lotu ebazan urrengo goizean Apolo'k zaldiak gurdian. Igon erazo eban Paeton eta bere eskuetan ipiñi ebazan zaldien ugalka eta naigabez agur egin eutson semeari.

Zaldiak larri egozan eguneroko ibillaldia egiteko eta laster asi ziran lau-oinka eta gurdiak alboetarantza egiten eban. Paeton'ek doi-doi al izan eban zutunik egon.

Zeruren goi-aldera eldu ziranean berantza jatsiten asi bear eben eta larregi urreratu ziran lurrera eta Paeton'ek alegiñak egin arren, ezin izan ebazan ugalkaz zaldiak eskuratu. Konturatu ziran zaldiak ez zala Apolo gidaria eta bildur barik oker jokatzen asi ziran.

Jokabide orretatik oker andiak sortu ziran lurrean: Beroak lur-azaleko zugatzak erreten ebazan eta lurra bera be kizkaldu, itxaso eta ibaiak berotu ziran, otz-aldian, ostera laiñoak edur biurtu... Giro oso txarra lur-gaiñean.

Jupiter jainko nagusia be bildurtu egin zan eguzki-zaldien jokabide okerragaz eta lurreko bizia galdu ez dedin, bide batzuk artzea erabagi eban: Bota eutson Paeton gidari gazteari tximista bat eta au jausi zan gurdi-gaiñetik eta zeruan urtu egin zan, tximista orrek zaldiak ikaratu ebazan eta apal biurtu ziran euren etxun-lekura gidari barik.

Oso goibel geratu zan Apolo seme barik. Eta eguzkia gidatzeko gogoa be galdu egin eban, baiña azkenean igon zan gurdira eta artu ebazan ugalka eskuetan, eguzki-zaldiak bideratzeko.

Orrelan lasaitu ziran koba-zuloetan oztenduta egozan gizaki errukarriak eta pozik ikusi eben eguzkia bere bidean. Laster konpondu ebazan eguzkiak egindako kalte guztiak.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

ARRIZKO JOSTAILUAK

(3N. SARIA)

Udazkenaren ondoren negua badatorrela jakin arren, ume guztiek badakie noiz etorriko dan Olentzero, antzarrak eta paseko txoriak negua pasatzera leku epelago batera joan bear dabela jakiten daben moduan.

Omar, Maite, Kamile, Asier eta Jon be sano urduri dagoz egun andiaren zain.

Gaur ikastolan olentzerori buruz itaun asko egin deutseez andereñoari, batez be Jonek.

Jonek ez dauko batere argi oparien kontua. Andereñoak Jonen itaunak arretaz entzun eta onela erantzun deutso:

– Ume maiteok, olentzero mendian bizi da, eta azagotik etorten da gugana, bere asto maitearen laguntzinoaz. Asto txiki-txikia da eta bere bizkarrean ezin ditu opari asko ekarri, orregatik ondo pentsatu bear dozue zer eskatuko deusazuen eskutitzean. Bearbearrezkoa dozuen gauza bakar bat eskatu bearko deusazue olentzerori, orduan bakarrik izango dauelako olentzerok ume guztientzako opari bana ekarteko era.

Ettxera eldu eta bereala ume guztiak euren opari bakar ori zein izango zan pentsatzen asi ziran.

Omarrek izekoa gaizorik eukon ondoko errian, orregatik bizikleta eskatzea erabaki eban.

Maiteri aurtengo udan geien maite eban panpina, txakurrak mila zati egin eutsan, alan da Olentzerori bardin-bardin bat ekartzeko eskatzea pentsatu eban.

Kamileri asko gustetan jakon amomarekin egotea, eta amomak kontetan eutsozan ipuinak entzutea, amoma kutunaren magalean loak artu eta amets egitea ipuinok. Baina zoritxarrez amoma azagto bizi zan. Urtean iru biderrez soilik ikusten eban, orregatik olentzerori berarekin bizitzen etor daiten eskatu eutsan.

Asierrek bera baino urte bi gazteagoa zan arrega bat eukon, egun guztia negarrez pasetan eban, bakarrik isiltzen zan amak ipuin bat kontetan eutsonean, ori dala-eta Asierrek grabagailua eskatu gura eutsan olentzerori, ama ipuina kontetan grabatzeko eta gero berak nai ebanean arrega txikiari ipinteko, olan ama lasaiago eongo zan berarekin.

Jon ez egoan ados opari bakarra eskatzearekin.

– Urtean egun bakarra eongo da gure dodana eskatzeko eta opari bakarra eskatuta konformatu bear... ezta pentsatu be. Nik izan gura dot gelatik opari geien izango dituana!

Jon zer eskatu pentsatzen asi zan, baina ez jakon ezer burura etorten, danetarik eukon eta... ez eban nai ezer. Aloa eta guzti be, bete eban zerrenda: bizikleta, baloia, bizikletan ibiltzeko kaskoa, futbolerako zapatilak, ezpatea, bakarrik dabilen kotxetxua eta amaitzeko teleskopioa.

Gabon gauean, olentzero ume guztiak lo egozala aprobeztatuz etxerik-etxe pasa zan opariak uzten.

Goizean goiz esnatu ziran Omar, Maite, Kamile, Asier eta azkenik Jon be bai. Danak olentzerok ekarritakoak ikusteko irrikaz.

Omarrek oparia zabaldu eta inoiz ikusi ez eban moduko bizikleta ikusi eban, bere bizi guztiko bizikletarik politena, argia eta guztirekin...

Maitek be di-da ireki eban oparia, eta zelako ezustea, txakurrak puskatu eutsan panpinaren bardin-bardina egoan bere zain.

Kamileri amoma joan jakon gozaria oera eroatera, eta Kamile ezustekoarekin ia-ia txorabiatu egin zan. A bai poza, olentzerok eskatutakoa ekarri etusolako.

Asierrek ba grabagailu polita aurkitu eban zuaitzaren azpian. Inolako astirik galdu barik amari ipuin baqt kontetako eskatu eutsan, ipuintxoa grabatu eta arrega txikiari ipinteko ia lasaitzen zan ikusteko.

– Ederto esan eban Asierrek, nire asmakizun au badabil, iupi!!

Jonek be zain eukoza zuaitz azpian eskatutako opari guztiak. Danak zabaldu ebazan baina opari baktzari arreta askorik jarri barik, izan be baeukoza lenagotik.

Zabaldu eta beste opariak egoza leku berean usteru joanean, a bai ezustekoa, opari guztiak arri biurtuta egoza.

Ume guztiak naita edo nai barik egurdate erdirako eriko plaza bilduta egoza, baina, Jon lotsatuta eta era berean amorratuta egoan. Ezin zan kalera atara, ez eukolako gainontzeko umeei erakusteko oparirik. Oparien orde arri pila andi bat eukon egongelako gabonetako zuaitzaren azpian.

Leiotik begira-begira egoan, Omarren bizikleata barriari edo eta Maiteren panpin politari.

Aserre egoan olentzerorekin berarekin txarto portatu zan-eta, orren adierazgarri oparirik txarrenek berari itxi eutsiezala zan.

Jonek leiotik begira mar-marrean ziaruan, Ane bere arrega txikia, lau ankan egongelaraino eldu zan unean. Zuzenean joan zan Jonen jostailuengana, paper pilaren kolore deigarriak eraginda. Asikera paper pilaren inguruan entretenitu zan Jonen begirada ilunaren agerpenaz jabetu be egin barik.

Papelekin jolasteaz nekatu zanean jostailuengana luzatu eban eskua, baina Jonek garrasi ozena bota eban, Ana ikaratuta geldildi geratu zan. Arri eta lur, minduta era beran. Zer egin eban ba berak, alako agirika jasotzeko?

Anarengana parajetu ostean, jostailuen ondtoik aldendu arazi eban Jonek arrega txikia, bere builen eta agiriken bitartez. Jonek argi eta garbi utxi eban bereak zirala jostailuak, eta bakarrik berarenak.

Anek osteru, jarrera orren zergatia ez eban ulertzen, gainera jostailuak ez ziran politak, ez eukon kolore deigarriak, eta Jon gelatik atara zanean barriro itzuli zan jostailuak egoza lekura.

Jostailuak bein eta barriz artzen ebazan altzoan, pena andia artuta, jostailuak jolasteko ziralak. Gainera ez eban ulertzen, bere nebak zergatik ez eban nai jolastu jostailu aiekin.

Jostailu guztien artean, batez be, autoa guztatzen jakon eta autoa artuta bere logelara abiatu zan apurka-apurka, berarekin jolasteko asmoz. Logelako oinazpikoaren gainean jesarri eta autoarekin jolasten asi zan, atzera eta aurrera mugituz, agoarekin auto zaratak eginaz. Alako baten, bere ezusterako, gero eta errazago mugitzen zala konturatu zan bere auto txikia, bai-eta kolorea eukola, gero eta bizagoa gainera. Sano auto polita eukon orain, berez dabilen norvegiagoetarako auto gorri-gorria.

Opari bat falta jakona konturatu orduko, Jon korrika joan zan arrebaren bila. Ikusi ebanak arrituta itxi eban; arrega txikia bere autoarekin jolasten ari zan. Lenago arrizkoa zan autoak, arrizkoa izateari itxi eutsan.

Orduan konturatu zan bere akatsaz, lagunei inbidia emoteko erabiltzen ebazan soilik jostailuak, eta gainera berak ez eukon jostailu aien bear izanik, orregatik bere arrebarentzat egokiak ziran jostailu guztiak batu eta berari oparitu eutsozan. Bat-batean, jostailu guztiek arri izateari utxi eutsian.

ASIER LEGARRETA

IRAULTZA BERA (BERAZATEGI-DOMINGUEZ) 1936'KO GUDA EUSKADI'N

Etorri zan, azkenean etortekoa zan gudea, alde batetik monarkikoak, karlistak eta falanjistik eta bestetik España'ko ezkerriak eta euskal abertzaleak.

Iñok ez eban uste ain luzea ta odoltsua izango zanik, sortzen zan guda.

Atzeratu ete eikean guda egiteko erabagi ori?

Bai España'n agintari on bat izan bat izan ba'litz. Erkalak orretarako alegin gitxi egin eban.

Franco jagi zan aurka, baiña ez urrengo egunean. Militarrik erdiak, eta oneikaz Franco, matxinadaren aurka egozan. Baiña Euskadi'n eta Nafarroa'n Mola'gaz, erkalaren alde jarri ziran. Batxokiak falanjisten etxe biurtu ziran sarritan, esaterako Uarte Arakil'en.

Nafarroa'n eta Araba'n naikoa ondo artu zan matxinada. Araba'n be izan ziran matxinoak, Donostia'n be bai, baiña ez ziran erkalalaren lagunak, iraultza batenak baiño. Laster isildu ebanzan geiengoak. Matxinoen aurka gogor jokatu zan Nafarroa'n (3.000 erail ebezan) erreketek militarrik (eskertiarrak eta bertzaleak ziran eraillak) eta Araba'n antzera.

EAJ araudia lortu-naian ebillan igaroak ziran bost urteetan. Ederto dakar urte onein edestia Jose Antonio Agirre'n «Entre la revolución y la guerra» bere liburuan).

Bere edestian EAJ/PNV'k artu dauan erabagirik aundiena, erkalalaren alde gudara sartzea izan zan. Jakiñak dira gure aldun euskaldunak Erroma'n kontzientziko arazo lez ori aurkeztu ebenean, artu eben erantzun maltzurra: «Moral aldetik ondo zoaze, baiña galdu egingo dozu».



Otxandio-Legutiano: gudariak gertaketan.

Gai orreri buruz Juan Ajuriagerra'k au diño: Erabagia artu zan baiña ez poz aundiagaz. Bardin laterriak be Araudia emon eban baiña ez poz aundiagaz.

Ori zan bakarra euskaldunak ez etozala batera matxiñoakaz, agertzeko, baiña agertu eben ezkertiarrik be ez tozala baterea, erlejiñoaren aurka ekiten eta eleizak erreten asi ziranean.

Beste arazo bat agertu jaken abertzaleai: Mujika euren gotzaiñak eta Iruña'koa zan Olae'txea'tar Martzeliño bizkaitarrak debekatu egin eben ezkertiarrikaz alkartzete ori. Zelan ori? Goma kardinalak eta militarrik alkartuta eragin eutseelako. Geroago jakin zan ori Mujika'k «Imperativos de mi conciencia» agiria zabaldu ebanean.

Dana dala, eskertiakaz alkartzete ori izenpetu baiño lenago eztabaida gogorrik izan ziran eta batzuk iges egin eben EAJ/PNV'tik. Txarrago oraindiño artu eben aurka erabagia artuta egozan Nafarroa ta Araba'ko abertzaleak. Esaterako Nafarroa'n Manuel Aran-

zadi eta onen etxeokak matxinoen alde jarri ziran eta beste batzuk abertzaleak itzi eta erreketetara joan ziran. Gipuzkoa'n Jose Artetxe idazle ospetsua alkartzearen aurka agertu zan, erreketeen alde. Bizkaia'n gitxi batzuk izan ezik onartu eben alkartzete ori, baiña ori nai ez ebenean artean Arana Goiri'tar Sabin'en Luis anaia egoan. Onek ez eban nai espantarrakaz olako artu-emonik eta «neutral» geratzea eskatzen eban. «Accion Nacionalista» ta «Jagi-Jagi»ko mendigoizaleak matxinoen aurka agertu ziran. Oneik Euskadi askatzea nai eben, baiña ez eben onartzen Araudia. Orretan Agirre ta Irujo'ren aurka egozan.

Olazar'tar Martin'ek

SAN FRANZISKO XABIERREN KANTU ZAR BAT

LATXAGAREN OARRAK

Orain dala ogei urte idazki zar batzuek, iru, eskuratu nitun. Idazki oyetatik bi argitaratu nitun dagoneko.

Lenengo: «Acto para la Noche Buena, Pedro Ignazio de Barrutiak eskuz egiña, editorial Lopez de Mendizabal, Tolosa, 1984».

Bigarrena: «Amodiozko kobla zarrak, Euskerazaintza, LVII zenbakia 2006 garren urtea».

IRUGARREN IDAZKIA ONETAN SAN FRANZISKO XABIERRERI BURUZ ESKUZ IDATZITAKO KANTU ZAR BAT DUGU. XABIER SANTU BAT BEZALA ARTZEN DU.

SAN FRANCISCO XABIERREN KANTU ZARRAREN ARGAZKIA OSORIK AGERTZEN DUGU.

GAÑERA IDAZTEKO TRESNAREKIN EGIÑA DAGON KANTU ZARRA ERE EMATEN DUGU, GARBITASUNAREKIN ERREXAGO IRAKURRI DEZAGUN.

Burura galdera bat datorkigu: Noizkoa ote dugu kantu zar au? San Franzisko Xabier 1506 garren urtean jaio zan Xabier delako gazteluan Naparroan. 1552 garren urtean il zan Chinaren urbazterrean.

Aipatua dago Juan Karlos Gerrak, R. M. de Azkueri bidalitako paper zar batzuen artean. Egillea ez du aipatzen. Euskera KANTU ZAR ONTAN Gipuzkoako izkuntzarena da.

FRANZISKO XABIERREN jaiotzaren 500 garren urtean ospatzen dugula. Euskaraz egiña dago gur eizkuntzan eta gañera idazki zar batean. Guretako bat bezala azaltzen du.

SAN FRANZISKO XABIER, GURE ZAINDARI TA EREDU BEZALA AGERTZEN DA.

AMAYA

SAN FRANZISKO XABIERRERI BURUZ IKASKETA SAKONAK EGIN ZITUZTEN AZPALDETIK ETA EMEN AZALTZEN DITUGU BERRIZ OSORIK.

EUSKALERRIAREN ALDE (L.923).

JUAN CARLOS DE GUERRA

«CANTARES DE SAN FRANCISCO JAVIER» PAG. DE 338 A 348.

LATXAGA

OARRA: Euskerazaintza LX'n agertzen da ageri au, baiña Latxaga'k daukan originalaren argazki-aldakia ez dago osorik orregaitik agertzen dugu emen barriro (Idazkalakoak).

1 Orienteco Aposto lo,
 Navier quere sabca,
 Peregrino en fancian zatos,
 vidastaren tragean?

Estrebillo.

Ez auxxa Juan,
 quelditu emen,
 quere Vriau honxatsen,
 bear zartuguz betico
Aitas n^o Fran^{co} Navier.

2 Ychassotican naiizanderu
 equir viage lucea,
 Portu onetan gobexnatzeo
Ychas aldeco gendia.
Ez auxxa Juan^o

3 Milagrossoa leoxxeta,
 vxean mareantea,

Ychasoetan Norteco Ysaxa
luxean siwenordea,

Ez auxxa Juan^o

4 Lex milagro da Ychas^{ca}

Conchan Pexla sorcea,

Ama izan nic Texuetac

Yuntzarequin batexa

Ez arxe Juan^o

5 Indietaticetoxiico,

Pexla edexa zuzera,

Esclavinaco conchao

eratendute au bexa.

Ez auxxa Juan^o

6 Jaungoycoarenamod
 arbotzaren betia?

Escubraquinescatena
bularreco Sotanea.

Ez auxxa Juan^o

~~Aopalditaco zera baguz~~

7 Ceuco suac billatcen aldy
 aisetan alivioa

edo zeure viotceraco,
 qucioc convidatsea?
 Et auxera Juan H^o
 Aspaldietan zeure bequixa
 Se goan Xu noblea
 nois etorrico, nois etorrico

quze felicidadea,
 Et auxera Juan H^o

Y doxo beza gauico egunetac?
 Nabitex, zeure auxeran

ossasun arco gauicoac, eta
 alivioa pobreac.

Et auxera Juan H^o

Ben penetan consueloa
 Coitadu miserableac,
 Exe medio lasterrecoa
 quze necesidadea.

Et auxera Juan H^o

I

ORIENTECO Apostoia,
Xavier gure jabea,
Peregrinoen jancian zatos,
vidastiaren trajea.

Estrebillo

Ez aurrera juan,
guelditu emen,
guere Uriau honratsen,
bear zituguz betico.
Aita Sn. Francisco Xavier.

II

Ichassotican nai izan dezu
eguin viage lucea,
Portu onetan gobernatzeko
Ichas aldeco gendia.

Ez aurrera juan...

III

Milagrossoa leorres eta
urean mareantea,
Ichasoetan Norteco Isarra,
lurrean susenvidea.

Ez aurrera juan...

IV

Zer milagro da Ichasotican
Conchan Perla sorcea,
Ama izanic Zeruetaco
Yuntzarekin batera.

Ez aurrera juan...

V

Indietatic etorririco,
Perla ederra zu zera,
Esclavinaco conchao,
esaten dute au bera.

Ez aurrera juan...

VI

Jaungoycoaren amodioa
artuazaren betia.
escuabiaquin escatsen da
bularreco Sotanea.

Ez aurrera juan...

VII

Ceruco suac billatcen aldu
aisetan alivioa
edo zeure biotceraco,
gucioc convidatsea?

Ez aurrera juan...

VIII

Aspialdetan Zeure beguira
Segoan Uri noblea,
nois etorririco, nois etorririco
guere felicidadea.

Ez aurrera juan...

IX

Ydoro beza gaurco egunetic
Xavier, zeure aurrean
Ossasun aico gaisoac, eta
alivioa pobreac.

Ez aurrera juan...

X

Beren penetan consueloa
Coitadu miserableac,
Erremedio lasterrecoa
gure necesidadeac.

Ez aurrera juan...

IV ALDIA.– BARRIKUNTZA: AZKUE TA ARANA

RESURRECCION MARIA DE AZKUE (1864-1951)

ALDI BARRI BAT

Kontuan artu daiguzan gure elertiaren aldiak, idazle bakoitza non ezarri jakiteko.

Orain artean ikusi doguz 1) Idazki zarren aldia. 2) Iparaldeko lenengo liburu idazleak. 3) Larramendi'ren ondorengoak.

Orain gure elertiaren zati bi ikusiko doguz: Euskerearen barrialdia (Azkue ta Arana) eta 5) Batu-Berri eta Erribide'ren aldia.

Euskal idazle guztien artean goragarriena dogu Azkue. Ulertu-eziñeko gauzea da zenbat arlotan eta zelako lan aundia egin eban gure Azkue'k, Euskaltzaindiaren buru izateak emon eutson lana alde batera itzita.

Bere iztegia da naikoa lan, bizitza guztirako gizon batentzat.

Lekeitio'n jaio zan. Gaztetan sumatu eban eleiz-deia eta lenengo Gasteiz'en, gero Salamanka'n osotu ebazan ikasketak eta 1888n. urtean dogu abade. Andik iru urtera lortu eban teolójian maisu edo dotore-mailla. Gero Koloña'n ikasi eban musikea.

Beronek atera eban Arana'tar Sabin'egaz batera gure euskerea beronen illobitik.

Azkue'ren idaz-lanak iru arlotan banatuko doguz: 1) Euskalari. 2) Musikalari. 3) Idazle.

1.– Azkue euskalari:

1.1. Izkindia edo gramatika, 401 orrialde. 1.2: El euskera. 1.3: Diccionario español- francés (561 orrialde). 1.4. Prontuario. 1.5.: Diccionario de bolsillo. 1.6: Morfología vasca (930 orrialde). 1.7: Gipuzkoera osotua (184 orrialde).

2.– Azkue musikalari:

2.1: Euskerazko erezak. 2.2: Eleizarako erezak. 2.3: Zarzuelak (Vizkai'tik Bizkai'ra, Sasi-eskola, Aitaren bildur, Gainzaleko eiztaria, Eguzkia nora, eta abar). 2.4: Iru oratorio. 2.5: Ortzuri (opera). 2.6: Urlo (opera). 2.7: Cancionero vasco popular (12 ale).

3.– Azkue idazle:

3.1: Txirristadak (274 orrialde). 3.2: Bein beti (elezerra). 3.3: Jesus'en biotzaren illea. 3.4: Ardi galdua (elebarria, gipuzkoeraz). 3.5: Itzaldiak. 3.6: Lamiñak Euskalerrian. 3.7: Euskalerraren jakintza (lau liburu aundi). 3.8: Ipuñak (248 orrialde). 3.9: Ortzuri (elebarria argitaratu gabea). 3.10: Latsibi (au be elebarri argitaratu bagea) (Olazar'tar Martin'ek).

ARANA TA GOIRI'TAR SABIN (1865-1903)

Azkue'gaz batera dogu euskerearen barriztatzaille. Fonetika edo abotsak Azkue'gandik artu doguz (alabea, ez alabia=Sabin), baiña idazkerea edo ortografia Sabin'en da geiago, urrezko arau au onartuta: Abots bakoitxari ikur bat; "erre" gangarduna ta "ele" marraduna ipiñi ebazan berak, baiña idazkin eta irarkoletako arazokaitik orre in orde "r" ta "l" artu dira. Baiña ts,tz,tx onartzen ditu Sabin'ek, ez otera Azkue'k.

Sabin'ek idazkera edo ortografia Euskaltzaindiak onartu eban 1920n. urtean.

☆☆☆

Sabin Abando'n jaio zan, gaur Bilbao dan errian. Eta zortzi urtekoa zala Lapurdi'ko Getari'ra eroan eben eta an egin ebazan lenengo ikasketak.

Orduña'n eta Bartzelona'n ikasi ebazan filosofia, legedia ta elertia.

Ettxekoakandik ez eban euskerarik ikasi, euskaldun barria dogu, baiña ikasketa aldi orretan ikasi eban Van Eys'en Dictionaire basque français'egaz eta Arturo Kanpion'en "Cuatro dialectos del euskera" liburutik.

Euskal politika izan zan bere ardura nagusia eta 1887n. urtean, ama il jakonean, (aita lenago il jakon), Bilbao'ra etorri ziran bizi izaten.

Lan ikaragarria egin eban lumaz eta berbaz, aldizkariak eta egunerokoak sortzen eta zabaltzen, euskeraz eta gasteleraz. Sukarrieta'n il zan.

Borondate sendokoa zan eta adimenez oso argia.

Euskeran itzen jatorriak edo etimolojiak, gramatika eta eskola-liburuak ebazan maite, baita elederra ta musikea be.

Amabi idaz-lan dira ezagunenak eta oneitan ondoen aztertutako gaiak etimolojiak, gramatika eta politika-arazo guztiak, gaiñera ortografia, egutegia, eta aldizkariak, Olerkiak be egin ebazan. Bere lan guztiak ale aundi baten argitaratu dira Ekin'en Arjentiña'n.

Sabin'ek Larrazabal Baserrian (Begoña'n) egin eban itzaldiak gure edestia zati bitan banatzen dau

Batzuk endakeri-zalea (racista) dala diñoe baiña ori diñoenak "Santiago matamoros dabe zaindari eta urrillaren 12n. egunean "dia de la raza" ospatzen eben, arik eta Zakarias Bizkarra Gotzain euskaldunak lotsakizun ori kentzeko "día de la Hispanidad" izena emon arte.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

AKELARRE, EPERLANDAK ETA INKISIZIOA

ELEZAR ETA MITOEN BARRENA TXANGOTZEN

GURE ERRIA'ren kultur-sustraiari begira sakon eta euskaldunki aritu zitzaigun Arturo Kanpion jakituna. Gar eta adorez betetako bere idaz-lumaz aleunka orrialde bete zizkigun, guri ikus-eraziz zenbateraño garrantzia daukan noizbeinka Edestian atzera begiratzeak, gaurkoaren oiñarria aurkituz etorkizuna gertatzeko.

Jakintsuki idatzitakoak bereiz, ba' ditu goxo-goxo arildutako zenbait euskal ipui eta lan eder. Eta ez dira aztutzekoak, bai bait-dute alako gazimin aparta. Ta nere burura datorkit gaztealdian irakurria, "Gratxina" izenburuz arek Zugarramurdi'ko sorgiñen biltegiari buruz idatzitako ipui zoragarria.

Zibilizazio lana? Latiñarekin asi omen zan kristautasuna zabalitzen Europa'n. Latiñak berekin zekarren ustezko zibilizazio edo-ta beste izkuntzen gaiñetiko mailla, gailentasun kulturala alegia. Gurea bezelako Erriak ordea, nekez artu zuan latera-izkuntzaren kutsua. Eta au juxtu-juxtu, Euskalerrri-ertzetatik, ego ta ipar-ertz lautsu diranetik. Kristautasunari ere oztop aundiak jarki zitzaizkion fede-edakuntzaren aurrera-bidean. Eta auek bereziki: latiñaren kimu etzan eta ez dan iñundik ere euskal izkuntza guztiz berezia, mendi basotsuak, oitura, mito, bizi-balio ta siniste zaarrak, lurbertako biztanleen sakanaketa. e.a.

Siniste zaarrak.– Barandiaran'dar Joxe Migel'ek dienez, gure Erria mendez mendeko oitura ta sinisteai oso uztarturik bizi izan da. Euskaldunak ba'zeuzkan bere oldargi edo jainko ta urtzemeak: Mari (edo Maddi) dandanean erregin edo burua, eta Sugar, aren laguna. Ez da beraz sinisgarri, leengo sinismundua bat-batera utzi ta euskalduna kristau egin zanik. Gizaldi luzeak alkargainka igarotzen ikusi bear izango zituan gure Erriak erdizka edo-ta osorik kristau biurtzeko. Eta kristauturik ere, sinismen –fedea zenbaitetan oso axaleko izango zala ez dago ukatzerik. Eta antziñako euskaldunak siniskeri ta aztikeri guztietara erraz joeratzan ziranik edo-ta lerratzen zitezkeanik ere ez. Garai bateko biziera olakoxea zan.

Sorgin eta sorginkeriak.– Edestian zear beti agertu dan gaia da sorginkeria. Izadiaren ezkutuzko indarren aurrean ezintasunik tamalgarri ta aundienean aurkitu izan da gizakia. Eta indar almentsu oiei aurre egiteko sorgiña izango zan gizakirik gaituena noski, arao ta konjuro-egille, izu-sortzaille alaber aintzat artua, jainkokide zitekelakoan; kristautasunak geroago legez kanpo jarriko zuana.

Izadiz gairiko doai bereziz orniturik ba'leudekan, sorgin-keiñuz kalte edo-ta senda-belar bakanez eta gantzukiz onik egiteko, luzaro, gaur arte, izan dute ospea

sorgiñak. Eta baita etorkizunaren edo-ta adurren asma-tzaille izan ditezkelakoan aztiak ere. Eta esan bearra dago, sorgin eta azti auei leporatzen zitzaizkiela anemengo errialdetan gertatzen ziran gaitz eta kalte guztiak, adibidez uzta txarrak, abereen ilketak, e.a.

Mundu guztiko erri zaarretan bezela gurean ere sorginkeria oso sustraiturik eta edaturik zegoan. Eta ba'zeuzkaten beren ospakizun nagusietarako biltoki bereziak. Zugarramurdi'n akelarre deitura artu zuten sorgin-bilgo auek. Eta onen aipua ez da itzali. Beste lekutan eperlanda artu zuten izen. Eta geienetan bizilekuarena berberena.

Elizak eta erribertako agintariak berauek neurri zorrotzak artu bear izaten zituzten maiz sorgiñen naspiltzak, gaizkintzak, izuak eta gaizpideak geldierazteko: zigorrak, espetxaldiak eta baita ola-alako epaiketa ondorenez sorgin berberauek erredurak. Arko'tar Jone prantzesa, gaur santu dana, 1431 urtean ez al zuten ba sumeta batez erre sorgin zalakoan?

Ain gogor epaitutako geienak emakumezkoak izaten ziran.

Zugarramurdi'ko leizeak.– Orainki bi illabeteratsu Zugarramurdi'n izan nau zuten dakarzkizuet izpidera bertako leize-sarrerako atean eskuratu zidaten zabalkunde-orritxoak zenbait edukin mamitsu-kontagarriz mukur.

Euskaldunok bitan banatzen gaituan sasi-muga menditsu ontan kokatua dugu, Sara'tik urbiltsu, Zugarramurdi irigunea. Ta antxe, aldapa-beeran datza leize ospatsua. Arkeologariak diotenaz ez gera emen mintzo. Sorgin ziralakoan biltoki berezi izateak damaio naturazko lekune oni bere aipua.

Sorgin-ipuiak.– Aoz-aotik jendeen ipuiari jarraiki, ementxe bildu oi ziran asteburuetan aragi-griñaz beteriko sorgin-talde kristauak, ttun-ttun eta txistu, dantza, zantzo ta irrintzi tartean ordi-jairik lizunenak ospatzera. Liturji-era berezitan akerbeltza izaten omen zuten jai-buru. Ta oni gurpen egitera beartuak zeuden ara bertaratuak. Ordurarte sorgin-gai izuti ta erabeti besterik etziranak, «esaneke izango al akit?» galderari, «Zindagit!» erantzunik eta jai-buru adardunaren atzekaldeko zerari muin emanik, fedekide ta sorgin aalmentsu biurtzen omen ziran. Ta aker-deabruarekin gozaketan ospatzen omen zuten meza beltza deituriko ospakizuna.

Kontakizunak daukan ipui-kutsu nabarmena kenduz, Zugarramurdi'n bildutako ergel alaenok ezurmamizko gizakumeak genituan guztiak, bai ar eta bai eme, jai-zale aragikoi-deabrutsuak noski.



KONDAIRAK

Auzitegi illuna: Inkisizioa.– 1542'garren urtean sortu zan, teologi-begiz ikusteko, kristau-fede garbiaren aldeko ta zaitzaille izango zan (edo-ta bear zuan izan) erakunde berezi bat: Inkisizioa. Eliz-jendez osatutako batzorde aalmentsua izan zan, apaiz ta praille-jendez, sarri ospatsuz, eratua. Erakunde onen buru aipagarrienetakoa Torquemada zeritzana izan zan, gaztelar dominikua, oiñazegailluak ausarki erabili bait-zizuan epai-mai zorrotz artara derriorez ekarritakoekin. Aren anker-aipuak biziro dirau oraindik. Pentsamendu-askatasuna ukatzen zan garai artan babesik gabe aurkitzen ziran erritarrak, Elizaren ortodoxiatik kanpo zegoen guztia debekatzen bait-zan. Sorginkeria auzigai garrantzitsu biurtu zan. Inkisizioak –elizak estaduarekin bat egiñik zegoanak– amorekaitz, ustezko lizunkerietara (fedea galdu arteraño) bilgune jaitzu oietara joan oi ziranak zorrozki zigortzen eta gaitzesten zituan.

Europa'ko sorginkeri prozesu guztiak antzekoak dira. Baiñan emen beintzat sorginkeri-gertagia Inkisizioaren egiatzko burukeri setatsua izatera eldu zan.

Sorgiñen atxiloketa.– 1610'garren urtean, sorgiñar eta emeak lasaipozaren lapur eta pake-urratzaille zirala-ta,

Logroño'ko Alvarado inkisidorea, Zugarramurdi-erriaren saleketa onartuz, azterpen sakon eta luzea egitera eldu zitzaigun. Irureunen bat lagun sorginkeri-salakuntzapean jausi ziran. Berrogei errudunenak atxilotu ta Logroño'ra izan ziran oldarrez eramanak auziperatuak izan zitezten. Sorgin ziralakook ba ote zekiten ala ziranik?

Atxilotuai leporatzen zitzaiena.– Atxilotu aue egotzi zitzaiena: pake-oreka urratuz deabrua jainkotzat eukitzea eta berarekin meza beltzak ospatzea, ekaitzak sortaraztea, abere ta pertsonen kaltez ere begizkoak-eta egitea. Eta azkenik, beste gauza bakanen artean, banpirismo (odol-xurgaketak) eta nekrofagia (ilki-jaketak) egitea.

Auzitaratuak artu zuten epaia.– Urte ontan bertan, Azaroa'k 7 eta 8'an, sorgiñek artu zuten epaia: errugaberik artuak emezortzi izan ziran eta jarei utziak. Amabi sutean erreak (auetariko bost irudi-eran, leendik espetxean il bait-ziran). Gaiñerantzekoai mota askotako zigorrak ezarri zitzaizkien, besteak beste, ondasun-galera, betirako gartzela, espetxaldi mugagua, eta abar.

Egaña'tar Gotzon

ITZULI

Itzuli niregana,
beste Jainkorik ez da
zeru ta lurretan,
lurtarrak maite ditut
gogorik onenagaz
bizit ederretan.

Gora, bai, guztiok
zoriontasun billa
bizitz laburrian,
zerua poz bera da
bakez ta maitasunez
betiraun guztian.

Ontasunaren bidez
lan eginda lurrean
jorratu bideak,
goitik dator laguntza
gizonak indartzeko
poztasun onenak.

JAUNAGAZ GARAILLE

Jaunarekin doana
garaille izango da
kurutza bidian,
etsaiak edonundik
agertuko dirade
goizian goizian.

Jainkoa deika dago
bere maitale danei
gogorik onenaz,
deika ta opaka
laguntasun onena
biotz guztiagaz.

Etsaia, gogoz, dabil
gizadiaren aurka
aspertu barik,
baiña gizon Jaubeak
ezin dau ikusi
semea galdurik.

JAUNAK SORTU GAITU

Gizonaren zatiak
ain eder dirlarik,
jakintsuak dira,
giza jakintza goitik
ondo, orniduta dago
bizia argira.

Gizona bere baitan
gogoz, ikasten dabil
bizitza sustraiak,
ta lan orren egitez
sarri, askatu ditu
gizonen biyaiak.

Biziaren Sorlea
Jaungoiko berbera da
lurraren aurrean,
Jaungoikoak maite gaitu
ta Bera de Zaindari
giza bizitzean.

JAUNAREKIN GARAILLE

Zerua eta lurra
Jaunak alkartzen ditu
bere-esanetara,
zerua betidanik
Jaunaren etxea da
poz audienera.

Zeru-goi ederretik
begira dago Jauna
gure gizartera,
berea da lur dana,
bereak lagun oro
ertzetik ertzera

Maitasun guztiagaz
arduraturik dago
gure buruketan,
ta bere laguntzagaz
garaille da gizona
esturaldietan.

PAULIN

JAPON

Sortalde Urrutian Japon dogu garrantzi aundiko laterri bat, Europa´gaz eta Sartalde guztiagaz artu-emon asko euki dauana eta gaiñera laterri-artean beti garrantzi aundikoa izan dana. Ezagutu daigun barru-barrutik.

UGARTEAK

Asia´ren eta Japon´en bitartean Japon´go itxasoa dago eta ugartedi osoak 1 600 km.´ko luzerea dauka. Lau dira ugarte nagusiak eta orreitan 70 milloi biztanle dagoz.

Beste ogeta amairu ugarte txiakiago dagoz inguruan.

XIX eta XX gizaldietan nagusi izan zan Asia´n eta sortalde eta ego-sartalde dana bere menpean eukan. Garmendiak edo bolkan amatauak dira ugerten jatorria. Lur-ikarak eta itxas-ikarak ugari dagoz. Eta sei urterik bein izaten dira zoritxarrak

Mendiak baso aundiak dira eta ibaiak ugari dagoz, %15 baiño ez da landu leiken lurra, batez be itxas-ertzean. Emen bizi da jenterik geiena.

ERLEJIÑO

Iru erlejiño dagoz, batez be, Japon´en: Lenengoa izan dan sintoismoa munduko gauzak eta ildakoak gogoratzeko. Au da agintarien eta nagusien erlejiñoa. Bigarrena budismo lege-zalea, 572n urtean sartu zan Korea´tik. Kristiñauak be sartu ziran mixiolarien bidez eta India´tik eta Sortalde´tik Islamismoa be sartu zan.

Erlejiño-gaietan bigunak diran japonarrak eta ez dabe erlejiñorik aurrean erabilten.

Eleizetan ildakoen izen-olak ipinten dabez eta intzentsua eskiñi. Otoitz egiñez arintzen dabe euren barrua.

Berreun milla leku santu, jainkoari eskiñiak, dagoz Japon guztian: Inari´k uzta ugarria dakar, Taisas ezkontzen jainkoa da, Konpira eta Suiten jainkoak itxasoan dabilzianak zaintzen dabez, beste batzuk aurrerapena ekarten dabe, edo gaisoak osatu eta idazteko lagundu. Erregea Jainkoagandik zuzen etorria da.

Budismoaren eleizak asko apaiñagoak dira sintoismoarenak baiño eta budismoa da legeak ekarri dauzana, elertia ta filosofia eta etxegintza ederra sortu dauzana. Bontzoak edo budisten abadeak erri-irakasle izaten dira.

Buda´ren irudi asko dagoz pagoda ederretan eta kanpoan. Kamakura´ko Budaren irudiak amabost m.´ko goiera dauka,

EDESTIA

Ez dakigu japonarren jatorria non dagoan. Kondaira batek diñoanez, Zerutik jatsi zan jainko-talde bat ezpatakaz eta geziakaz eta arkaitz-zuloetan bizi ziran. Ondorengoak daukez Japon´en. Beste ipuin batek diñoenez, Jimmu Tenno koreatarra izan zan lenengo erregea eta gure 200n.urtera arte agindu eban etxe orrek. Gero feudalismua sartu zan. Eta goi-maillako jaunak eukezan, eta be-maillan nekazariak eta merkatariak egozan. Gizaldi askotan agindu eban feudalismo onek.

Wang-In´ek sartu eban Txina´ko idazkerea, baiña Japon´ek guda asko izan dau Txina´gaz. 1860n. urtean Meiji jarri zan errege eta nekazariakaz samuraiak menperatu ebazan. Ipar-Amerikatarrak ekarri ebazan trenbideak, telegrafoak eta abar.

1894n. urtean guda garratza ezan eben Txina´gaz eta 1904n. urtean Errusia´gaz. 1914n. urteko lenengo guda nagusian Nazio Alkartuakaz bat egin eban Japon´ek eta lurralde asko irabazi ebazan inguruan.

ZELAKOAK DIRAN

Onak dira jostailuak egiten eta “ango andererik ederrenak” dirala esaten dabe. Olako jantziakaz jazten dira ango neskatxuak jaietarako, margo biziz apainduta. Eldu biurtzen diranean margo gitxiago erabilten dabe eta ezkontzen diranean urdin-illun, berdezka eta baltzak diran jazkiak baiño ez dabez artzen.

Janpondarrak txera edo kortesi larregi agertzen ei dabe, baiña aldi batzutan itun be biurtzen dira. Olako aldakuntza daukaz bertako giroak be.

Erregeari eta aundiai maitasuna izaten seaskatik ikasten dabe.

Illargiaren bidean doa euren egutegia eta ortik ateraten dabe zein batzar egin eta zelako kimonoa jantzi eta zelako jakiak jan. Eskekoak be arro dagoz japonar izateagaz.

Batzuk feudalen ondoregoak dira, bigunak, leunak arpegi biribildunak, begiak itxi-antzean, betazal lodiak, zur eta ago txikia. Beste batzuk mongoliarren odolekoak dira, txikiak, indartsuak, azur gogorrekoak, narru baltza, matrail aundiak, begi-ertz zuzenak, zur txikia, ago aundia eta bekoki igeskorra. Gaur guztiak artu dabez sartaldeko oiturak.

JAIK

Jaiak egiten zaleak dira: erlejiño girokoak eta alaiak, janketak, sariak, lagunak ikustera joateko, saltokiak itzi eta jolasteko egunak dira.

Jaietan jainkoa gurtzen dabe: eskuetan eroaten dabe eleiz-birak egiteko eta or egiten dabez samurai-dantzak, abadeak zaldi-gaiñean joaten dira, soiñu-joleak mozorrotuta, erritarrak jaietako jantziakaz., beste batzuk ezpatakaz eta danborrakaz.

Wasa jaia da ospetsuena: Agureak umeakaz eleizara joaten dira banbuzko age baten laranja daroela. Eta eleizan guztiak irrintzika amaitzen dabe.

Urte barri eguna be, gugaz batera, jai aundia eta aste biko jaia izaten da, erriak eta kaleak apaindu egiten dira, etxeetako ateak landaraz jazten dabez, atea soka sakratuaz itxiten dabe, gelan arrozeko opiltxu bi daukez, papel gorriak, abanikoak, algak, eta zorionaren irudi da Kagami-Motxi bat jartzen dabe. Kanean umeak kometakaz, neskak euren jokoetan, kaletan dantzariak eta soiñulariak, gurdi azkarrak. Argazkiak egiten munduko zaleenak dira.

Erregea ta erregeña oso aintzat artzen dabez eta euren berbaldia itzaltasunez entzun be bai. “banzai” deadarra egiñez.

SORTALDE URRUTIA

ETXEKO BIZITZEA

Etxeak ondo landuak dira, teillatuak ederrak eta askotarikoak, oiñetakoak beti atarian izten dabez, gero lurrean jesarten dira bazkaldarrak artzeko. Etxeko tabiak mobikorak dira eta orma lodietan zuloak daukez gauzak gordeteko. Berotzeko egur-ikatzeko labatxuak daukez

Bañu-gelan zipresezko otzi bat dago eta 40°ko urez beteten dabe.

Emakumeak oso langilleak dira etxean eta nekazari-tzan be egiten dabe lan. Algak batzen be ibiltzen dira.

Oso gitxi dira eskolatu bakoak. Goitik beera eta eskoi-tik ezkerrera irakurten dabe

Arratsaldeetan artu-bearrekoa da tea eta orduak igaroten dabez presatzen, atsedeen-aldia da.. Eta emakumeak lorak apaintzen jakin bear dabe eta lore bakoitxaren esantzia kontuan artu.

SOIÑUA TA ANTZERKIA

Lenagoko antzerkiak eta oraingoak eta erbestekoak ezagutzen dabez. Eta operak be entzun be bai, Carmen, Traviata...

Antzezlariak bide bereizia dauke antzokira sartzeko eta urteteko, jantzitegi ikusgarria eta nastetsua dauke, margo bizikoak beti. Emakumeen lan guztiak gizonetzkoak egiten dabez. Antzokiak bete-bete egiten dira.

Ager-tokiaren oiñean soiñulariak jartzen dira. Dantzak be izaten dira antzerki-ordez.

JOLASAK ETA KIROLAK

Burruka-jokoak daukez eta iñoz egunetan irauten dabe: Kanpo zabalean, zapizko zerupean, epailleak jazki bereziakaz., abanikua eskuan dala, Burruklariak 140 kilo-koak, ule luzeagaz, asteko gatza botaten da adiskidetasunaren ezaugarri lez, irabazteko arerioa lekutik kanpora bota bear da.

Jiukitsu izkillu barik norberaren burua zaintzeko jokoa da, Txina'ko lamak sortua. Samurai'ak artu eben eurentzat. Ortik atera da gero "judo": gorputzaren zatiak, batez be zanak, ondo jakin eta arerioa uste barik lurreratzeke.

ABEREA

Oillar buztan-luzeak, iñoz zazpi m., asko dagoz, baratzetan orkatzak ugari, ainuak deritxen antxiñako japon-darrak lenengo artzaren billa ibiltzen dira eta aurkitzen dabe-nean gurtu egiten dabe, gero il, narrua kendu eta narru au agintariaren txabolan ipiñi. Gero jan egiten dabe "Artz Jainko" ori eskariak eginda. Gero azurrak txikitu sendagai izateke.

Arraintzan be euren oikuneak daukez,

AZTIKERIAK

Japondarrak lur-ikaren bildur aundia dauke, orregatik dira aztikeri-zaleak, mamu ta deabruen bildurrez bizi dira eta sorginkeriak be sinisten dabez,

Lur-ikarea lurpean bizi dan arrain aundi baten buztan-kada dala uste dabe eta ildakoak egiten dabez gauza kaltegarri asko.

Aztikerietan asko sartzen da Kit-tsu-ne dertxon piztia eta ipuin asko dagoz orreri begira. Azkonarrak ibiltariak



Japondar emakume bat, «deabruak uxatzeko» geza eskuan.

okerreko bidetik eroaten dabez, deabruak adarrak dauz, agin aundiak, bagietatik garra botaten dau, emakumeak arrapau eta mendietako zuloetara eroaten dauz, Tengu'k giza-aupegia eta egoak daukaz, gizonak arrapatzen dauz eta zentzuna galduta itzi, suzko bolaren bildur izaten dira, "San Telmo" ren sua ete da?

Aranondo batek urte askotan zaintzaille izan eban nagusia maite eban. Zartzaroan atzerriratu zanean, aranondoa zustraitik urten eta atzerriratu egin zan egaz joanda eta bere nagusiaren etxe barriko baratzean landatu zan.



SARTALDEAGAZ ARTU-EMONAK

Japon lurralde aurreratua izan dan lez, artu-emon estuak izan dauz Europa'gaz eta Usa'gaz, eta artu-emon onein artean gogoangarrienak guda-aldietakoak izan dira.

Lenengo gudaldian sartaldekoakaz batera eta asko irabazi eban Japon'ek, lurralde askren jabe egin zan. Baiña munduko bigarren gudaldian ez eba olako zoririk izan, Alemania'rer ondoan jokatu eban eta Hitler bunkerrean il zanean, bizi-bizi egoan guda.. USA'tarrak guda ainbat lasterren amaitzea nai izan eban eta orretarako kizi-indar edo atomozko lerkai bi jaurti ebezan Japoz'en gaiñera, Hirosima'n bata eta Nagasaki'n bigarrena. Ondamendi ikaragarria izan zan, baiña gudak beingoan ikusi eban azkena.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

EUSKALDUN BARRIA



Zazpi Erruak

KARMELE

BIZKAITARREI BIZKAIERAZ

EUSKERAZALEAK

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 euro)

BBK

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilero,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

www.bbk.es

bbk²